

**NAFARROAKO IKURREN LEGEA.** UPNko gobernuaren egitasmoei erantzunez, Nafarroako 24 alkatek beraiek ordezkatzeko dituzten herrietako udaletxeetan ikurrinak jartzeko eta euskararen foru dekretuari intsumisioa agertzeko asmoa azaldu dute.

# Nafarroako banderaren ondoan ikurrina iraunkorki jartzearabaki dute 24 alkatek

Euskararen Foru Dekretuari jarrera intsumisioa agertzea eta 'Gernika Deialdia' ekimenak hilaren 25erako deituriko manifestazioarekin bat egitea ere ebatzi dute



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Atzoko ekitaldian izan ziren hamabost alkateak, zutituta, bi dantzarik aureskua dantzatzeko bitartean.

Garbiñe Olaizola | LEITZA

Nafarroako 24 udalerritako alkateek eurek ordezkatzeko dituzten herrietako udaletxeetan ikurrina, Nafarroako banderarekin batera, iraunkorki jartzeko erabakia hartu dute, atzo Leitzako alkate Tomas Azpirozek jakinarazi zuenez. Bidean, euskararen alorrean, beste erabaki bat hartu dute aipatu udal ordezkariak: Nafarroako Gobernuaren Euskararen Foru Dekretuari jarrera intsumisioa azaltzea.

Nafarroaren nortasunaren aurka «behin eta berriz egiten diren erasoei» aurre egiteko egitasmoaren baitan kokatzen dira bi erabakiok. Horren ildotik, adierazpen bat sinatu dute eta

ekimen horrekin bat egiteko deia egin diete Nafarroako gaitzako alkateei.

Adierazpena atzo aurkeztu zuten Leitzako udaletxean ekimenarekin bat egin duten 24 alkateetatik hamabostek. Haien artean izan ziren Tomas Azpiroz Leitzako alkatea, Josetxo Flores Etxarri-Aranazkoa, Josu Goia Berakoa eta Camino Mendiluze Altsasukoa. Amaieran bi dantzarik aureskua dantzatu zuten udal ordezkarien aurrean.

Nafarroako Gobernuak onartu dituen Ikurren Lege proiektuari eta Euskararen Foru Dekretuari erantzuten diete alkate nafarren bi erabakiak. Abenduan Nafarroako Gobernuak onartutako Ikurren Lege

proiektuak dio nafar udalerritan Nafarroako bandera bakarrik jar daitekeela, bai eta Espainiakoa, Europakoa eta tokian tokikoa ere.

Euskararen erabilpena Administrazioan arautzeko Foru Dekretuari dagokionez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak balioz gabe egin zuen iaz, tramitazioan forma akatsak argudiatuz. Akats horiek zuzendu ostean, proiektua abian jartzeko asmoa du Foru Gobernuak.

## Nafarroaren ondarea eta ikurrak babesteko konpromisoa

Adierazpenaren sinatzaileek, halaber, Nafarroaren «ondare kultural aberatsa eta haren nortasun ikurrak defenditzeko kon-

promiso tinkoa» hartu dute. Horrez gain, *Gernika Deialdia* ekimenaren haritik urtarrilaren 25ean Iruñean egingo den manifestazioarekin bat egin dute.

Sinatzaileek adierazpenean diote Nafarroak «aniztasunez beteriko kolore askotako ortzadarra» izaten jarraitzen duela eta «herri baten existentziaren amatasunaren» adierazle dela, «hala identitate alorrean, nola ikuspuntu politiko instituzionalen».

«Mendeetan zehar, menperatu gaituztenak, bertako laguntzaileekin batera, gure herria bereganatu nahian saiatu dira. Gizarte errealitate aberatsa eta askotarikoa dena murriztu nahi dute, beren trokel eskas horre-

## ALKATEAK

### Nafarroako 24 alkatek sinatu dute adierazpena

**Altsasu.** Camino Mendiluze.  
**Anue.** Antonio Senosiain.  
**Araitz.** Jose Mari Urdanpilleta.  
**Arantza.** Jose Ramon Amoros.  
**Arbizu.** Xabier Razkin.  
**Bakaiku.** Jose Manuel Etxeberria.  
**Bargota.** Marta Garcia.  
**Basaburua.** Benito Alberro.  
**Bera.** Josu Goia.  
**Ergoiena.** Olatz Berastegi.  
**Etxalar.** Miguel Mari Irigoien.  
**Etxarri-Aranatz.** Fernando Flores.  
**Garinoain.** Carlos Sola.  
**Goizueta.** Pili Untxalo.  
**Irurtzun.** Eduardo Murugarren.  
**Iturmendi.** Julian Galarza.  
**Larraun.** Joxan Azpiroz.  
**Leitza.** Tomas Azpiroz.  
**Olazti.** Luis Alberto Besga.  
**Puiu.** Patxi Gil.  
**Urdazubi.** Andrea Dirassarri.  
**Urdiain.** Iñigo Etxeberria.  
**Ziordi.** Patxi Bengoetxea.  
**Zubieta.** Benantzio Baleztena.

tan sartzen ez den guztia ezabatu nahian», gaineratu dute adierazpenean.

### Ikurren Lege proiektua geldiarazteko deia egin dute

Sinatzaileen ustez, UPNko gobernuak Ikurren Lege proiektuarekin «sekulako egonezina pizteaz gain, herri erantzuna artikulatzeko beharra sortu da gure baitan».

Alkateek uste dute Miguel Sanzen gobernuak «ikurrinaren erabilpena debekatzeko eta zigortzeko» idatzi duen lege egitasmoa «astakeria» dela, eta «udal autonomia eta herritarren borondatearen aurkako beste urraketa bat» dela. Horregatik, lege egitasmoa geldiarazi dezatela eskatu diote nafar gizarteari.

Nafarroako bandera eta ikurrina «guztiz osagarriak» direla deritzote, «herri honen iragana eta gure orainaldia islatzen dutelako». Bata bestearen ondoan ikusteak «kontraesanen bat sortu beharrean» pozez betetzen dituela adierazi dute, «Espainiakoa edo Frantziakoa ikusteak probokatzen dizkigun sentimenduekin alderatuz».